

Aurrezki Kutxen Fundazioak (Funcas) eutsi egin dio hezkuntza-ekimen honi ematen dion **laguntzari**, Finantza Hezkuntzaren Pizgarria izeneko bere programa barruan

1.700 ikaslek ekingo diote Kutxabanken 'Bizitzarako Finantzak' ikastaro berriari

- **Bosgarren edizio honetan, iaz baino 200 partaide gehiagok eman dute izena dagoeneko eta ikasturtean zehar 125 ikasgelatara joatea aurreikusi da**
- **Webgune berria du programak eta % 100 birziklagarriak diren materialak erabiliko ditu jokoak**

2019ko urriak 9. Gaur hasiko da 'Bizitzarako Finantzak' programaren bosgarren edizioa eta **% 13 egin du gora** izena eman duten ikasleen kopuruak.

Aurten ere, Aurrezki Kutxen Fundazioaren (Funcas) laguntza du programak. Laguntza hori berretsi dute Funcas-en zuzendari nagusia den **Carlos Ocañak** eta **Gregorio Villalabeitia** Kutxabanken presidentek. "Finantza Hezkuntzaren Pizgarria" Funcasen programaren eskutik dator akordioa, eta Finantza Arloko Formazioaren nazioarteko astea dela aprobetxatuz sinatu dute.

'Bizitzarako Finantzak' urratsez urrats sustraitzen joan da Bigarren Hezkuntzako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako (OLH) euskal zentro askoren prestakuntza-programan. Gaur arte, Euskal Autonomia Erkidegoko **47 ikastetxek**, publikoak eta itunpekoak, eman dute izena 2019-2020 ikasturterako, hau da, **1.695 ikasle** orotara. Ikasgelen **% 65,5ek euskaraz** egingo du lan eta % 34, 52k gaztelaniaz edo elebidun.

Programak, iazko ikasturtean, OLHn izan zuen harrera onaren ostean, **lanbide heziketako 5 ikastetxetako 12 ikasgelak** eman dute izena dagoeneko, ikasturte honetako lehenengo hiruhilekoan parte hartzeko, hau da, duela urtebete baino **% 14,5 partaide gehiago**. Ikastetxe horiek 'Bizitzarako Finantzak' programan interesa dutela adierazi dute, euren ikasleek, batzuetan, zailtasunak dituztelako finantza eta ekonomia arloko beste mota batzuetako lan-ekimenak garatu ahal izateko.

Gazteek finantza-arloko oinarrizko kontzeptuak uler ditzatela du helburu 'Bizitzarako Finantzak' programak, horrela, helduarorako ibilbidean ezinbesteko izango zaizkien zenbait gaitasun eta ezagutza hartuko dituzte. Horregatik, tresna bereziki eraginkorra da DBHko 4. mailako ikasgeletan, Ekonomia eta Ekintzaile Jarduerarako Ekimena ikasgaietarako. Beste ikastetxe batzuek zeharka erabiltzen dute 'Bizitzarako Finantzak' programa ikasgai batean baino gehiagotan, esaterako, Matematika, Gizarte Zientziak, Ekonomia, Informatika edo Teknologia.

‘Bizitzarako Finantzak’ programak ikasgelan lan egiteko behar den material didaktiko guztia ematen die ikastetxeei eta **dinamizatzailerakasleen** nahiz **Kutxabankeko adituen** (gehienak jardunean ari diren bulego-zuzendari gazteak) partaidetza ere barne dago. Programaren itxiera-jardunaldira joaten dira **zalantzak argitzeko** helburuz, baita **arazo bakoitzerako irtenbide** onenak argudiatzeko eta ekimenaren helburuak bete diren baloratzeko ere.

Plastikorik gabeko materialak

Gaur hasiko den ikastaroaren berrikuntzetako bat honakoa da, partaideek erabat berriztutako www.finanzasparalavida.com webgune lagungarria erabili ahal izango dutela. Web-orri horretan, erabilgarriak eta jokoaren osagarriak diren kalkuluak egiteko simulagailuak aurkituko dituzte.

Programaren material fisiko guztia **FSC egiaztagiria duen paperez** egindakoa da, hau da, paper birziklatutik datorrena edo iraunkortasun irizpidez kudeatutako basoetatik. Gainera, **kendu egin dira plastikozko bilgarri guztiak** eta horien ordeztuak kartoizkoak erabili dira.

Simulazio-jokoa

‘Bizitzarako Finantzak’ programa ikastetxeetan bertan garatzen da, formatu berritzaile baten bitartez: simulazio-joko zuzendua eta partehartzailea, ikasleei eta irakasleei finantza-trebetasunak lantzea errazten diona eta hezkuntza-gaitasunak lantzeko balio duena, esaterako, matematika, teknologia digitalak edo komunikazio linguistikoa. Binaka edo gehienez lau laguneko taldetan, partaideek pertsonaia bat aukeratuko dute ausaz (langabetua, ikaslea, enpresari txikia, merkataria, e.a.), baita helburu bat eta helburu hori lortzeko gehieneko denbora dakartzan txartel bat ere.

Premisa bi horiek ezagututa, eta ordubeteko iraupena duten hiru edo lau saiotan zehar, hileko diru sarrera eta irteeren zerrenda egin beharko dute, aldagai guztiak aintzat hartuta (diru-sarrerak, derrigorrezko gastu finkoak, beharrezko gastu aldakorak eta beharrezkoak ez diren gastuak) ezarritako helmugara iristeko. Irakasleek aldagaiak proposatzen dituzten txartel batzuen bidez dinamizatuko dute jokia; txartelek abiapuntua aldatuko dute zailtasun-maila biren inguruan. Jokoa itxierako azalpen-saioan amaituko da. Saio horretan, argi geratu ez diren bizitzarako finantzetako kontzeptuak zehaztuko dituzte Bankuko adituek.

Lortutako datu onei eta asetahun-inkestetan islatutako balorazio positiboek esker, ‘Bizitzarako Finantzak’ programaren bosgarren edizioak joko didaktiko horretan parte hartzen dutenen kopuruak gora egingo duela aurreikusi da. Abiatu zenetik **8.900 ikaslek** hartu dute parte programan.